

IRAETA

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta.

IRLANDAko harmarritan
harpa zaigu ageri,
eta zeltarren hizkuntzan
bardo bat kantari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta


EUSKAL HERRIko oletan
txalaparta da ari,
burdin dunbots artean
kanta hau durundari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta


IRAETAko plazetan
zortzikook dantzari,
kartzelako burdinpetan
hamaika eusko gudari.

IRAETA, IRAETA,
harpa eta txalaparta

ANDREONE zahar honetan
eutsi batasunari,
eta kanta orok goraki
euskal askatasunari.



Patri Urkizu



Mark Legasse

Oharra:

Apirileko 27an, burutu zen Andrene kultur Etxean, Mark Legasseren «El zortziko de Iraeta para arpa y Txalaparta» izeneko liburuaren aurkezpena. Ekitaldi honetan Patri Urkizuk honako olerkia eskeini zion Legasseri.